
ZALDI URDIN BAT MARGOTU ZUEN ARTISTA

Testua eta irudiak: ERIC CARLE

Itzulpena: MANU LÓPEZ GASENI

Azal gogorrean koadernatua. 23 x 30 cm. 32 or. 15 €.

Zaldi urdin bat margotu zuen artista (euskara)
ISBN 978-84-7681-708-7. Kalandraka-Pamiela.

El artista que pintó un caballo azul (gaztelania)
ISBN 978-84-92608-54-6. Libros para soñar.

O artista que pintou un cabalo azul (galegoa)
ISBN 978-84-8464-781-2. Tras os montes.

L'artista que va pintar un cavall blau (katalana)
ISBN 978-84-15170-13-6. Kalandraka-Hipòtesi.

O artista que pintou um cavalo azul (portugesa)
ISBN 978-989-8205-64-3. Livros para sonhar.

*"Ni artista naiz eta margotzen ditut...
zaldi urdin bat eta... krokodilo gorri bat eta..."*

"Zaldi urdin bat margotu zuen artista" espresionismoaren aitzindaria izan zen Franz Marc (1880-1916) aleman margolariari egindako omenaldi bat da. Haren "Zaldi urdina" margolana Eric Carle-ren liburu honen abiapuntua izan zen. Carle-k bere arte irakasle Herr Krauss-i esker deskubritu zuen Marc-en obra, erregimen naziak margotzeko joera hura debekatuta zeukan garaian. Era, tonu eta ehundura guztietako koloreekiko gustua aurkikuntza eraginkor horretatik datorkio, hain zuzen ere.

Liburu hau aurreirakurle eta lehen irakurleentzat pentsatuta dago, oso testu sinpletik abiatuturik eskala kromatiko osoa erakutsiz doalarik. Gainera, etxabere eta piztia batzuk erakusten ditu, ezohiko itxura, marrakera eta koloreez irudikatuta.

Album honek, irudimena bultzatu ez ezik, sormen-askatasuna aldarrikatzen ere du. Artistaren figura ikusleei hurbiltzen zaien neurrian, adin guztietako irakurleen interesekoak izan daitezkeen Arte eta Historiari buruzko ezagutzak ere tartekatzen dira.

"Zaldi urdin bat margotu zuen artista" honek oinarri autobiografikoa du: Eric Carle-k bere burua irudikatzen du errealitatea zorrotz berritzen ez duen ilustratzaile gisa, hala bereizgarri zaion estilo batez jarduteko harrotasuna erakutsiz.



- **Galak:** koloreak, animaliak, artea.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera.
- **Alderdi nabarmenenak:** arte-kontzeptuak, espresionismoa, Artearen historia; Franz Marc-en obran oinarrituta.

Eric Carle

(Siracusa, New York, 1929)

Eric Carle, 70 album baino gehiagoren egile, 1967an hasi zen liburuak ilustratzen, urte askotan publizitate agentzia bateko arte zuzendaria izan ondoren. Akademie der Bildenden Künste (Stuttgart, Alemania) izeneko arte eskola famatuan ikasi zuen. Gero, 1952an, Estatu Batuetara itzuli zen paper zorro bat besapean eta 40 dolar sakelean, aukera baten bila, eta aukera hori The New York Times-eko diseinatzaile grafiko gisa iritsi zitzaion. Osorik, irudi eta testua, argitaratu zuen lehen liburua *1,2,3, to the Zoo* (1968) izan zen, geroago, *The very hungry caterpillar* etorri zen. Bolognako Haur Liburuaren Nazioarteko Feriaren saria eskuratu zuen, Haur Liburu-dendarien Elkarteak eta Liburutegien AEBetako Elkarteak emana. Eric Carle-k hauxe esana du: "Nire liburu gehienek bitartez etxearen eta eskolaren arteko zubi lana egin nahi dut. Etxetik eskolara joan beharra haurtzaroaren bigarren traumarik handiena da; lehena, noski, jaiotzea da. Bi kasuetan babes eta epeltasun toki bat uzten dugu toki ezezagun batera joateko. Uste dut haurrak sortzaileak eta ikasteko gauza direla berez. Nire liburuetan aipatutako beldur hari eusten saiatzen naiz, eta haren ordezkari mezu positibo bat igortzen. Erakutsi nahi diet ikastea liluragarria eta jostagarria dela".

